Murgian, bi mila eta hemeretziko urriaren hogeita hamarrean, arratsaldeko sei eta erdiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ezohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

**ALKATEA**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)

**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
ITZIAR MENDIA CELAA AND. (EH Bildu)
ALAITZ TRESSERRAS ANGULO AND. (EH Bildu)
NEREA IDIGORAS LASAGA AND. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (ZUIA BAI)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)
ANDRÉS LAFUENTE OTXOA JN. (ZUIA BAI)
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)

**BERTARATU EZ DEN ZINEGOTZIA:**
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)

Sei eta erdietan ekitaldi publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda jorratu zen, premia berretsi ondoren:

**1.- PREMIAREN BERRESPENA.**

En Murgia a 30 de octubre de dos mil diecinueve, siendo las 18:30 horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Extraordinaria con carácter urgente la asistencia de las personas miembros de la Corporación que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)

**CONCEJALES ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR MENDIA CELAA (EH Bildu)
DOÑA ALAITZ TRESSERRAS ANGULO (EH Bildu)
DOÑA NEREA IDIGORAS LASAGA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (ZUIA BAI)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)
DON ANDRÉS LAFUENTE OTXOA (ZUIA BAI)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

**CONCEJALQUE NO ASISTE:**
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)

Abierto el acto público a las 18:30 horas, por orden de la Presidencia se trató el orden del día previsto, previa ratificación de la urgencia:

**1.- RATIFICACIÓN DE LA URGENCIA.**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Udalbatzak aho batez berretsi du bilkuraren premia, kontratu hau lehenbailehen esleitzeko beharragatik, Europara zuzendu behar baita.

**2.- UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK KUDEATU ETA KIROL IKASTAROAK EMATEKO ZERITZUAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.**

Palatu kirol instalazioak eta Jai Alai pilotalekua kudeatzeko zerbitzuen (tartean, kirol jarduerak eta udalerriko enpleguaren sustapena) kontratazio espedientea onartzea proposatu du alkate-udalburuak. Kontratazioa prozedura ireki bidez egingo da, askotariko esleipen irizpideak erabilita eta aipatu kontratua arautzen duten baldintza administratibo eta teknikoen pleguen arabera. Pleguetako baldintzak eta aurreko kontratazioetakoak ia berberak dira, baina egungo kontratu araudira egokituta. Ondoren, pleguetako hainbat gai zehaztu ditu: kontratuaren prezioa igo egiten da oraingoarekin alderatuta, batez ere hitzarmen aplikagarrian ordainsariak igo direlako eta subrogatu beharreko langileak kontuan hartuta; iraunaldia bi urtekoa da eta beste bi urtez luza daiteke; ez da lotetan zatitu, kontratatzen den zerbitzuaren prestazio ezberdinen koordinazioa beharrezkoa dela eta kontratuaren xede diren zerbitzu guztiak emateaz arduratuko den enpresa esleipendun bakarra izatea eraginkor eta merkeagoa dela uste baita; ez dira baliabide elektronikoak erabiltzen udalak ez dituelako horretarako egokiak diren horrelakorik; azken lizitazioko esleipen irizpideei eutsi zaie; erregulazio harmonizatuaren menpe dago; eta baldintza teknikoak direla-eta, egin beharreko prestazioak zehatz-mehatz arautzen dira eta berritasun gisa, egun jakin batean izango den jarduera fisikoaren orientazio zerbitzua gehitu da. Gainera gehitu du, prozeduraren epeak

La Corporación por unanimidad ratifica la urgencia de la sesión por la necesidad de adjudicar a la mayor brevedad posible este contrato, que debe ir a Europa.

**2.- EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE GESTIÓN DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS MUNICIPALES E IMPARTICIÓN DE CURSOS DEPORTIVOS.**

El Alcalde-Presidente propone aprobar el expediente de contratación de los servicios de gestión de las instalaciones deportivas de Palatu y Frontón Jai Alai, incluidas las actividades deportivas, y el fomento del empleo en el municipio, mediante procedimiento abierto, múltiples criterios de adjudicación y los Pliegos de cláusulas administrativas y técnicas reguladoras del citado contrato, que prácticamente mantienen las condiciones de contrataciones anteriores, adaptadas a la nueva normativa contractual; a continuación detalla algunas cuestiones de los pliegos: el precio del contrato se incrementa respecto al actual principalmente por el incremento de retribuciones del convenio aplicable y teniendo en cuenta el personal a subrogar, el plazo de duración es de dos años con posibilidad de prórroga dos más, no se divide en lotes porque se considera necesaria la coordinación de las diversas prestaciones del servicio que se contrata y resulta más eficiente y económico contar con una única empresa adjudicataria encargada de prestar todos los servicios objeto del contrato, no se utilizan medios electrónicos porque el Ayuntamiento carece de los medios adecuados para ello, se mantienen los criterios de adjudicación de la última licitación, está sujeto a regulación armonizada, y respecto a las condiciones técnicas se regulan detalladamente las prestaciones a realizar y se incorpora como novedad el servicio de orientación de la actividad física que se desarrollará un día

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

kontuan izanda zaila izango dela 2020.01.02rako esleituta egotea, beraz, esleipen berriaren hasiera eguna horren erabakian zehaztuko da, dauden jarduerak ez aldatzearren.

determinado. Añade que, teniendo en cuenta los plazos del procedimiento, será difícil que pueda estar adjudicado al 02.01.2020, por lo cual habrá por lo que la fecha de inicio de la nueva adjudicación se concretará en el acuerdo de la misma, con el fin de no alterar las actividades existentes.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusirik.

Visto el informe emitido por la Secretaria-Interventora.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 117. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarriko 2.ean xedatutakoa kontuan hartuta.

Considerando lo dispuesto en el artículo 117 y el número 2 de la Disposición adicional segunda de la ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público,

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

LEHENENGOA: Palatu kirol instalazioak eta Jai Alai pilotalekua kudeatzeko zerbitzuaren (tartean, kirol jarduerak eta udalerriko enpleguaren sustapena) kontratazio espedientea, prozedura ireki bidez eta askotariko esleipen irizpideak erabilita, onartzea eta horren lizitazioaren deialdia egitea.

PRIMERO: Aprobar el expediente de contratación para la adjudicación del servicio de gestión integral de las instalaciones deportivas municipales de Palatu y frontón Jai Alai, incluidas las actividades deportivas, y el fomento del empleo en el municipio, mediante procedimiento abierto, pluralidad de criterios de adjudicación y convocar su licitación.

BIGARRENA: 2020. eta 2021. ekitaldietako aurrekontuan berori gauzatzeko dagokion zenbatekoa esleitzeko konpromisoa gain hartzea, aurrez izapidetutako espediente izateagatik, 340.227.040 eta 341.227.120 partiden kargura esleituko direlarik.

SEGUNDO: Asumir el compromiso de consignar en el presupuesto del ejercicio 2020 y 2021, al tratarse de un expediente de tramitación anticipada, la cuantía pertinente para la ejecución del mismo, con cargo a las partidas 340.227.040 y 341.227.120 de los mismos.

HIRUGARRENA: Aipatu kontratua arautuko duten Baldintza Administratibo eta Teknikoen Pleguak onartzea, espedientean jasotakoaren arabera.

TERCERO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas y Técnicas que han de regir el citado contrato, en los términos que figuran en el expediente.

LAUGARRENA: Informazio osoa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean

CUARTO: Publicar toda la información en el Diario Oficial de la

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

eta Euskadiko kontratazio publikoaren plataforman dagoen kontratatzailearen profilean argitaratzea hogeita hamabost eguneko epean zehar, Europar Batasunaren Argitalpenen Bulegora lizitazioaren iragarkia bidaltzen denetik kontatzen hasita, interesatuek egoki irizten dituzten proposamenak aurkez ditzaten.

Unión Europea y en el perfil de contratante alojado en la plataforma de contratación pública de Euskadi, para que durante el plazo de treinta y cinco días a contar del envío del anuncio de licitación a la Oficina de Publicaciones de la Unión Europea puedan presentar las personas interesadas las proposiciones que estimen pertinentes.

BOSGARRENA: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 140. artikuluan aipatutako dokumentazioa sailkatzeko egin beharreko bilera baino gutxienez zazpi egun lehenago, kontratazio-mahaiaren osaera Kontratatzailearen profilean iragartzea.

QUINTO**:** Publicar la composición de la mesa de contratación en el Perfil de Contratante con una antelación mínima de siete días con respecto a la reunión que deba celebrarse para la calificación de la documentación referida en el artículo 140 de la LCSP.

SEIGARRENA: Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren erabakiak hartu eta beharrezko agiri pribatu edo publikoak zein, hala badagokio, horien konpontze edota zuzenketa, sina ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

SEXTO: Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento adopte cuantas resoluciones y firme cuantos documentos públicos o privados requiera la materialización de este acuerdo, así como en su caso su subsanación y/o rectificación.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:05ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizado el acto, siendo las 19:05 horas, de todo lo que como Secretaria certifico.

Idazkaria / La Secretaria,